

Foruak eta erlijioa euskararen gramatizazioan

Blanca Urgell

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

blanca.urgell@ehu.eus

Urgell, B. (2025). Foruak eta erlijioa euskararen gramatizazioan. In V. Anachoreta, S. Duarte, & R. P. de León (Orgs.), *Historiografia Gramatical: norma e ideologia* (pp. 09-58). Centro de Linguística da Universidade do Porto.

<https://doi.org/10.21747/978-989-9193-77-2/hisa1>

Aurkezpena¹

Mugimendu historikoak elkarrekin korapilaturiko faktore ugari eta konplexuen ondorio izan ohi dira. Hala bada, haietako bat hitz gutxitan definitzea konplexutasun hori ulergarri egiteko saiotsat baino ezin daiteke har. Sintesi asmo horrekin, gure kasuan bi hitz azpimarratuko ditugu, *foruak* eta *erlijioa*, 1900 arte euskararen gramatizazioa hobeto azaltzen duten kanpoko bi faktoreak direlakoan.

Garai historikoan, hau da, Bernat Etxepare nafarraren *Linguae Vasconum Primitia*ren 1545eko argitalpenaz geroztik, euskara zazpi lurraldetan bizi da, lau Espainian (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa Garaia) eta hiru Frantzian (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa), nahiz artean hizkuntzaren mugak nahikoa atzeratu diren, Araban eta Nafarroan batik bat, XVIII eta XIX. mendeetatik aurrera.

“Gramatizazioaz” hitz egiten dugunean, Auroux-ek (1992, 1994) sortutako kontzeptuari gagozkio: tradizio greko-latindarrean oinarriturik eta haren kontzeptuak erabiliz Europako hizkuntza *arruntak* aurrenik - eta gero

¹ Lan hau «Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (MINECO, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren eta «Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia / Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque (DLTB)» (Eusko Jaurlaritza, IT1534-2) ikertaldearen laguntzaz eginga da. *II Jornada de Historiografía gramatical: norma e ideología*ren antolakuntzari biziki eskertzen diot nazioarteko entzuleria baten aurrean gai honen ikuspegi gaurkotu bat aurkezteko aukera eman izana.

munduko gainerakoak - deskribatu, irakatsi/ikasi eta normalizatzeko teknologiak (gramatikak, hiztegiak, etab.) sortu zituen Errenazimenduaz geroko mugimenduari, alegia.

Kontzeptu hori emankorra da eredu berei jarraituz eta oso antzeko terminoetan deskribatuko diren hizkuntzen sare gisa ulerturik, zeren eta horrek gramatikaren ulermen unibertsala izateko eta irtenbideak partekatzeko aukera eman baitzien. Horren paradigma Nebrijaren obra dugu, beraren gramatika eta hiztegiak, espainierarenak, hizkuntza askotara egokituak izan baitziren, euskara bera ere barne (Landucciren gaztelania-euskara hiztegia, 1562)².

Halaber, emankorra da hizkuntza bat eta beraren barruko gertakariak elkarrekin lotu eta ulertzeko. Euskararen kasuan, lehen salbuespen isolatutzat jotzen ziren lanak euskararen gramatizazioan egindako ekarpen goiztiartzat jotzeak, Aurouxen ekarpena gogoan, ondorio jakingarriak eta batzuetan ustekabekoak erdiesten lagundu digu.

Gure hizkuntzak, Aurouxek berak adierazi bezala (1992, 37. orr.), gramatizazio prozesu hartan parte hartu zuen Europako gainerako hizkuntzekin batera - berehala baita amerindiar eta abarrekin batera ere -, baina haren bidea ez da gozoa izan, beste hizkuntza gutxitu batzuei edo, bere definizioari dagokion beste termino bat erabilirik,

² Sakondu nahi izanez gero, Landucciren gaiari buruzko azken ekarpen bikaina kontsulta daiteke (Liverani eta Parenti, 2022), non egile beraren gaztelania-italiera hiztegiaren edizioaz gain, ikerketa berriak eta aurreko bibliografia zabala eskaintzen diren.

estaturik gabeko beste hizkuntza batzuei gertatu zaien modu bertsuan.

Egile askok adierazi dute hizkuntza baten normalizazioaren fenomenoaren ezin dela hizkuntza-termino hutsetan tratatu eta, beraz, ez eta haren gramatizazioarena ere. Suzanne Romaine-k (2007, 686. orr.) azaldu bezala, tartean motibazio politikoak, sozialak eta kulturalak egon ohi dira, eta batzuetan baita erlijiosoak ere.

Motibazioen ikuspegi horretatik, bost gramatizazio-garai proposatuko ditugu, Lakarrarekin (1997) eta Gorrotxategi eta Lakarrarekin (2001) funtsean bat etorririk, baina garaiak definitzen dituzten hizkuntzaz kanpoko baldintzak nabarmendu nahirik: (1) Humanismoa eta erreformismo kristaua (1545az geroz); (2) Kontrarreforma katolikoa (1617az geroz); (3) Foruak eta barneko misioak (1728az geroz); (4) Nazionalismoa (1891z geroz); eta (5) Euskara batua (1968az geroz).

Hautatutako izenetatik eratortzen den bezala, erlijioa - kristautasuna - hortxe dago hasieratik; ez euskararen bakarrik, jakina, baina euskararen oso bereziki, zeren eta, beste hizkuntza batzuetan ez bezala - portugaleran eta espainieran, baita katalanean ere, jardunaldi honetan aipatu diren hizkuntzetatik irten gabe - ez baita bestelako faktorerik izan, hala nola administrazioko, auzietako zein hezkuntzako erabilerarik, eta are literatur tradizioa bera ere arras ahula da 1900 arte.

Foruak ala *erlijioa*, zein den gehiago erabaki beharko bagenu, dudarik gabe azkena lehena litzateke, zeren eta, hala foruzaletasuna nola geroko nazionalismoa hasieran katolikoak baitziren - are ultrakatolikoak ere -. Anekdotak gisa, gogora dezakegu, ildo berean, euskara batuaren lehen

urratsak diseinatu zituen Euskaltzaindi hark frantziskotar bat zuela buru, aita Luis Villasante, eta Pirinioen alde bietako elizgizon dezente biltzen zituela.

Beren aldetik, foruak edo kostumak gako dira Euskal Herria osatzen duten zazpi lurraldeen historian. Berdin gertatzen da Espainiako eta Frantziako estatuak osatzen dituzten lurralde askoren historian ere, baina, bestetan ez bezala, 1841 arte mantendu ziren Nafarroa Garaikoak, alde zaharretatik, eta 1876 arte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoak, gorabehera zenbaitekin bada ere. Ondorioz, Espainiako gainerako lurraldeetan baino mende eta erdi gehiagoz eragin zuten foruek euskal lurraldeen bilakabidean eta Koroarekiko harremanetan. Borboien dinastia Espainiara iristean foruak kezka iturri bihurtu ziren, bai eta euskararen alde lan egiteko akuilu ere XVIII. eta batez ere XIX. mendean. Foruen galera akuilu anitzez handiagoa izan zen.

Hurrengo ataletan orainalditik abiatu (§ 1) eta gero iraganera jauziko gara, euskararen historiaren hasierara - "historia" adiera hertsian - Etxeparerekin. Ikusiko dugu bi mendez (1545-1745) erlijioa izan zela euskara gramatizatzeko ziorik indartsuena, bakarra ez bada ere (§ 2). Gramatizazioaren bidean urrats erabakigarria, paradigma-aldaketa, euskararen lehen gramatika (1729) eta lehen hiztegia (1745) argitaratzean gertatu zen: eginkizun horretan bat egin zuten hein batean gure bi hitz gakoek, *foruak* eta *erlijioa*, eta horri eskainiko diogu lanaren zatirik handiena (§ 3).

1. Estandarizazio berankorra

Hizkuntza partekatu edo batu bat sortzeko asmoa argi eta garbi dokumentaturik dago XIX. mendearen hasieratik, inor gutxiren asmoa bazen ere. Proposamen zehatz batzuk praktikan ere jarri ziren, nahiz eta arrakasta erlatiboa izan, hala nola Azkue lehenengo euskaltzainbuaruaren *gipuzkera osotua* (1935)³. Hala ere, gutxieneko akordiorako baldintza egokiak ez ziren bildu Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarrera arte (1968), izen bereko santutegian egina (Oñati, Gipuzkoa); harrezkero, urratsez urrats, euskara batua finkatuz joan da, Gernikako Estatututik aurrera (1979) sortu ziren autogobernuko erakundeen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) babesarekin, besteak beste. Ohiko hizkuntza estandar gisa onartua da eta 1980ko hamarkadatik aurrera belaunaldi bat baino gehiagoren euskalki bihurtu da - lehen edo bigarren hizkuntza gisa -, batez ere euskara galdua zen eremuetan (esaterako, Gasteiz, Iruñea eta Bilbo hiriburuetan), nahiz eta ahozko hizkuntzaren dialektoekin batera bizi, jakina; izan ere, berezko euskalkiak toki batzuetan sasoian daudela esan daiteke - esan nahi baita, Europako hizkuntza gutxituen egoera kaskarraren testuinguruan -, eta kasuren batean nolabaiteko lehia mantentzen dute zeinek bere lurraldean euskara

³ Aizkibelena da lehenengo proposamenetako bat: ikus Gómez (2009, 274. orr.). Ikuspegi orokorrago baterako, berriz, Urgell (2018, 551 eta 565. orr.).

batuarekiko are idatziz ere (bizkaierak eta nafar-lapurterak bereziki)⁴.

2. Erlijioa eta gramatizazioa XVI eta XVII. mendeetan

2.1. Humanismoa eta erreformismo kristaua: *Debile principium...*

Bernat Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) bere lanaren izenburua bezain adierazgarria den kolofoia ere eman zion: *Debile principium melior fortuna sequatur*. Hain zuzen, hastapenak ahulak izan ziren, hala bildu ziren indar eskasengatik nola emaitzengatik: zeren are saio indartsuenek ere azken finean huts egin baitzuten. Hala eta guztiz ere, azken urteotan gero eta argiago dago ezen, zeinahi ere dela emaitza, hasiera haiek ez zirela euskararen historiaren ikuspegi dramatiko - eta askotan aktualista - batek aditzera eman ohi duen bezain ezdeusak.

Etxeparerekin batera euskararen gramatizazioaren hasiera markatzen duten bi izen besterik ez ditugu ekarriko: Pedro de Madariaga bizkaitarra (*Honra de escribanos*, 1565) eta Joanes Leizarraga lapurtarra (*Testament Berria*, etab., 1571). Bietan, oraindik aipatu ez dugun baina gramatizazioaren ezinbesteko bidelaguna den alderdi bat nabarmenduko dugu: ortografia.

⁴ Euskara batua gaur egun polizentrikoa ez ote den galderari erantzuteko lehen hurbilketa bat gauzatu du berriki Azkaratek (2023).

Pedro de Madariagak - aski ezaguna gaztelaniaren ortografiaren historian ere (cf. Esteve Serrano, 1976-77, 152. orr.) - eskribauentzako bere eskuliburuaren bigarren zatia hizkuntza guztietarako balioko lukeen ortografia orokor bat proposatzera bideratu zuen, bere *bizkaitar hizkuntzarako*, hots, euskararako ere bai⁵. Helburu zehatz horrekin, amaieran, liburuaren gaina eta bikaina bailitzan, bere hizkuntzari - hari bakarrik - kapitulu bat eskaini zion. Bertan deitoratu zuen, lehenik eta behin, herrikideek ez zutela idatziz erabili ohi, “liburu inprimatuak izanda”⁶. Bigarrenik, bere proposamen orokorrean jaso gabeko soinu pare bat, euskarak berezkoak dituenak, nola irudikatu iradokitzen du. Gure ustez, proposamenak nolabaiteko eragina izan zuen (Hego) Euskal Herriko jende ikasien artean (Garibai, Kapanaga), baina, gaurdaino dakigunaren arabera, oso mugatua izan zela esan behar dugu.

Madariagarena hedadura mugatuko norbanako baten eginbidea izan bazen ere, Nafarroako Juana III.a eta Eliza Erreformatua, zeinaren kide baitzen erregina 1560az geroztik, biak daude Leizarragak egin zuen Testamentu Berriaren eta beste erlijio testu batzuen itzulpenaren atzean (1571). Lan hori protestantismoak *Sola Scripturaren*

⁵ Hemen aldeztu dugun interpretazioa Ulibarri eta Urgell (2019) lanetik dator, eta bertan aurkituko dira dagozkion argudioak.

⁶ “Ezin dut saihestu nire bizkaitarrekin [euskaldunekin?] pixka bat haserretzea, ez baitute gutunetan eta negozioetan erabiltzen, eta jende askori [euskaraz] idaztea ezinezkoa dela pentsarazteko arrazoiak ematen dizkiote, hizkuntza horretan liburu inprimatuak egon arren” (Madariaga, 1565, 107v-108r orr.; itzulpena gurea da). “Liburu inprimatuak” plural horrek jakin-min izugarria pizten digu, ez baitugu Etxeparez (1545) eta Elso nafarraren dotrinaz (1561) besterik ezagutzen. Ez ote dugu bat edo beste galdu?

alde egin zuen apustuaren eta horren ondorio izan zen Biblia Europako hizkuntza anitzetara itzultzeko ahaleginaren barnean ulertu beharra dago⁷.

Leizarragak eta Olorongo Kontzilioak (1565) esleitutako haren laguntzaile taldeak - Pierre Haultin edo Hautin inprimatzaileak ere ziur aski zeresan handia izan zuen horretan -⁸ liburu sakratua lehen aldiz itzultzean egin zuten lanaren ezaugarri aipagarrienetako bat euskal hotsak islatzeko zehaztasuna eta koherentzia dira; hala bada, are latin-erromantze tradizioan irudikapen argi eta bereizgarririk ez zutenek ere aurkitu zuten zeinek bere adierazpidea, hala nola bi txistukari afrikatuak (*ts* eta *tz*), nahiz Erreginari idatzitako eskaintzan Leizarragak berak esan euskara zela *sterilenetarik eta diuersenetaric: eta oraino, translationetan behinçat, vsatu gabea* ('antzuenetarik eta askotarikoenetatik; eta oraindik, itzulpenetan behintzat, erabili gabea'; *vi-v).

Bai Nafarroako Erresuman eta bere gainerako jabetzetan, bai Euskal Herri osoan - eta, azken finean, Frantzia osoan - erreforma protestantea errotzeko Joana erreginaren egitasmoak Frantziako Erlijio Gerren ondorioz patu onik ez izan arren, eta ez hoberik beraren seme Henrike III.a Nafarroakoaren eta Frantziako IV.aren konbertsioaz geroz ("Parisek ondo merezi du meza bat" esaldi famatua egozten zaio), frogatu egin da Leizarragaren itzulpenek halako eragin bat izan zutela ortografiaren

⁷ Burke-ren hurbilketa (2006, 117-121. orr.) laburra bezain ongi dokumentatua da.

⁸ Inprimatzaileen eginkizuna ere Burkek laburbildu du (2006, 121-123. orr.), nahiz eta Leizarragari berari dagokionez Arcocha eta Lakarra (2019) lanera jo behar den, eta haiei jarraitzen diegu nagusiki.

alderdi honetan, eta bestetan, hala Iparraldean, *lapurtera klasikoa* deritzon (XVII-XVIII. mendeak; § 2.2) nola Hegoaldean, gure lanaren bigarren zatia protagonista den Larramendiren bitartez (§ 3)⁹.

Nolanahi ere, Mounole eta Lakarrak (2018, 401-404. orr.) adierazi dutenez, Leizarragaren xedea huts-hutsean erlijiosoa zen, eta ez estandar bat - are gutxiago *hizkuntza politika* bat - sortzea, zeregin berari ekin zioten beste fedekide batzuen bezala, haietako hainbat *a posteriori* nor bere hizkuntzaren estandarren eredu bihurtu baziren ere¹⁰. Izan ere, euskara ez zen inoiz Nafarroako Erreinuaren hizkuntza ofiziala izan, ez Juana erregea baino lehen, ezta beraren aroan ere¹¹.

Agerikoa da Leizarragaren Itun Berriaren itzulpen kalbindarraren eta "Humanismoa eta erreformismo

⁹ Leizarragak geroko garaietan izan zuen eraginari buruzko lehen hurbilketa baterako, ikus Urgell (2015). Gaiak ikerketa zabal eta zehatzagoa beharko luke.

¹⁰ "Edukia - eta hori ahalik zehatzenik islatzea - zen haren ardura erabatekoa, ez mintzatzeko era diferenteena; hau, bere eginkizun paregabea burutzeko eragozpen txiki bat edo bere lanaren zailtasunen aldarrikapen-bide zuen" (Mounole eta Lakarra, 2018, 403. orr.).

¹¹ Gaztelako Erresumak Nafarroa Garaia konkistatu ondorengo (1512) Nafarroako erreinu txikiko hizkuntza ofiziala bearnesa da, XVII. mendean euskal hiztunen eskubideak babesteko baliabideren bat ezarri bazen ere (ikus Mounole eta Gómez, 2018, 476-477. orr.). Aurreko garaia dagokionez, Monteanok (2017, 60-67. orr.) Nafarroako Erresuma "itzulpen-makina erraldoi" gisa definitu du: izan ere, lekukoek euskaraz deklaritzen zuten funtzionarioen aurrean - lege euskaldun izan behar zuten -, eta haiek gaztelaniara itzultzen zituzten lekukoen adierazpenak, batzuetan jatorrizko hizkuntzaren berri emanik - eta beste batzuetan ez -.

kristaua” gure izenburuaren arteko harremana. Askoz ezezagunagoa da, baina gaur egun ondo finkatua, Etxepare poetaren lotura *Imitatio Christi*-rekin estuki loturiko halako erreformismo ebanjeliko batekin, agian erasmista batekin: hori agerikoa da bai liburuaren azalak buru duen Kristo gurutziltzatuaren irudian, bai barneko hainbat edukitan ere¹². Poeta humanista, garaian guztiz txertatua¹³, haren bertsorik ospetsuena nabarmendu behar dugu: *Heuscara, ialgui adi mundura!*

2.2. Kontrarreforma katolikoa (1617az geroztik bati bat)

Trentoko elizbatzarraren (1545-1563) politika berriaren lehen ondorio ezagunak, dotrinaren irakaskuntza nork bere hizkuntzan egiteko agindu baitzuen, Hegoaldeko bi elizbarrutietako argitalpenak izan ziren: Antso Elsoko nafarraren katixima (1561), gaur galdua, Iruñeko elizbarrutiaren barnean argitaratu zen, eta Joan Perez Betolatzako arabarrarena (1596), Pedro Manso Calahorrako apezpikuaren aginduz. 1600. urteko Calahorrako sinodalak (elizbatzarren aktak) gorde dira¹⁴, eta bertan apezpiku hark berak agindu zuen “kristau dotrinak urtero inprimatzeko” bere elizbarrutiko barietate

¹² Aurelia Arkotxari (2008) aitortu behar zaio aurkikuntza garrantzitsu hau egin izana eta Etxepareren lanetik kanpoko eta lanaren barneko froga ugari eman izana. Lehen aldiz azaldu du, gainera, Iparraldean eman ziren gramatizazioaren lehen urratsetan Etxeparek izan zuen lekua (*op. cit.* 43-53). Ikus orain Arcocha & Lakarra (2019).

¹³ Gai horretaz, ikus Oyharçabal (2008) ere.

¹⁴ Politika bera izan zuten Iruñeko elizbarrutian ere (Madariaga, 2014, 172. orr.).

ezberdinetan. Predikazioaz ere aritu zen Manso: “Agintzen dugu halako tokietan [elebakarretan], sermoiak euskaraz egin daitezen eta apaizek ez dezatela besterik onartu, zigortuak izateko penaren baitan, eta apaizek berdin jokatu behar dute Ebanjelioa azaltzen dutenean” (*apud* Urquijo 1923, 339. orr.; itzulpena gurea)¹⁵. Egoera horrek, hots, katiximak-edo bakar-bakarrik argitaratzeak eta hizkuntza idatzia tokiko aldaeretan zatikaturik egoteak, Hegoaldean XVIII. mendearen erdialdera arte iraun zuen bere horretan (ikus § 3).

Kontrarreformak euskararen idatzizko erabilerari egin zion ekarpenik garrantzitsuena lapurtera klasikoa izan zen, 1617an Esteve Materra frantziskotarrak (*Materre* frantsesez) *Doctrina Christiana* argitaratzean hasia. Literatur hizkuntza horrek erpina jo zuen Joanes Etxeberri Ziburukoaren erlijiozko poesiarekin (batez ere *Manual Devotionezcoa*, 1627) eta Pedro Axular nafarraren *Guero* aszetismo-liburuarekin (1643). Lapurtera klasikoa ondorengo idazleen eredu izan zen mendeetan, Iparraldean batik bat, eta euskara batuaren erreferenteetako bat ere bai.

Lapurtera klasikoa funtsezko gai birekin lotu behar da: lehenik, Iparraldean, batez ere Lapurdin, oraindik frantsesez irakurtzen ez zekien eta, beraz, argitaratutako euskarazko liburuen xede-irakurle bihur zitekeen burgesia baten sorrera (Oyharçabal, 2001). Bigarrenik, eta hau da

¹⁵ Lan honetan erdarazko pasarte guztiak euskaraz eman ditugu, “itzulp. gurea” markarekin, Larramendik, Mitxelenak eta abarrek euskaraz idatzi zituztenetatik garbi bereiztearren. Jatorrizkoak bilduma honetan bertan argitaratu den gure honen gaztelaniazko bertsioan daude eskura.

guri dagokiguna, Bertrand de Etxauz Baionako apezpikuak (1599-1617) bere ardurapean zeuden euskaldunen erlijio-heziketa sendotzeko erabakia hartu zuen, protestanteen eta katolikoen arteko talkak bizi berri baitzituzten, Frantziako Erlijio Gerrak (1562-1598) barne, eta berrikiago, halaber, Pierre de Lancreren jarduera (ustezko) sorginkeriaaren aurka (1609). Frantsesez egindako lanengatik jadanik ezagun zen idazle batek, Materrak, apezpikuaren deiari kasu eman eta, haren eskariz, euskara ikasi eta dotrina hura idatzi zuen -Manso apezpikuaren kartilla tipiekin zerikusirik ez-, agian Axularren laguntzarekin edo haren begirada pean¹⁶. Urte batzuk geroago estrategia beraren parte izan zen agian antzeko figura bat, Silvain Pouvreau itzultzaile eta lexikografo oparoa (euskaraz lanean 1650-1660 artean), bera ere hiztun berria eta apezpikutzarekin harreman onak zituen. Ez dirudi kasualitatea denik Pouvreau lehenago Duvergier de Hauranne-ren idazkaria izatea, hots, Saint-Cyraneko abade ospetsuarena, zeina baitzen jansenismoaren buruzagia, Baionan jaioa, non dotrina horrek jarraitzaile asko izan zituen.

Neurriren batean Leizarragarenetik abiatuta¹⁷, Materrak bere liburuan hautatu zuen euskal bariedadea -

¹⁶ Gaiari buruzko ideia eta datu garrantzitsu horietako batzuk, dagokion bibliografiaren gain, Materraren edizioaren aurreko ikerlanean aurkeztu dira (Krajewska *et al.*, 2017, batez ere 14-15).

¹⁷ Urgell (2015) lanean Materraren eta Leizarragaren artean antzemandako grafia eta lexiko alorreko batetortzeak nabarmendu dira, baita Etxeberri Ziburukoarenak ere agian bere euskararen ohikoak ez ziren ezaugarri gramatikal zenbaitetan. Materraren batetortze grafikoak handiagoak dira 1623ko bigarren edizioan (Krajewska *et al.*, 2017, 17. orr.), eta hori oraindik interpretatzeke dugu.

Sarakoa eta, oro har, Lapurdi itsas hegikoa (barnealdekoari aitz) - Iparraldeko estandar bihurtu zen - betiere kontuan harturik estandarrek benetako izakiak bainoago nozio idealak direla (Romaine, 2007, 685. orr.). Estandar izaera hori hainbat modutan islatzen da, eta nagusien artean bi hauek daude: batetik, lapurtera klasikoak Iparralde osoko idazleengan izan zuen eragina, handia edo txikia; bestetik, barnealdeko lapurtar eta baxenabartarrek ia beti erabili zuten (Camino, 2018, 729-730. orr.), baita zuberotarrek ere irakurleria zabalago bati zuzendu nahi zitzaizkionean behintzat (Urgell, 2018, 590. orr.). Egoera hori, *mutatis mutandi*, 1887 arte mantendu zen, *Eskualduna* aldizkariak *nafar-lapurtera* izeneko estandar berri baten erabilera sustatu arte (*ib.* 552, 623-624; Camino, 2018, 730. orr.).¹⁸

Lorpenak ez ezik, lapurtera klasikoaren ahuleziak ere aipatu behar. Axularren *Gueroz* (1643) geroztik argitaratutako lan gehienak biziki xumeak dira, zalantzarik gabe irakurleriaren heziketa maila apaldu izanagatik (ikus Oyharçabal, 2001). Bestalde, hainbat gramatika eta hiztegi sortu ziren gramatizazioari laguntzeko, baina horietako bakar bat ere ez zen argitaratu - Martin Harrieten *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua frances hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* (1741) dateke salbuespenik handiena -, eta batzuk galdu ere egin dira, hala nola aipatutako Joanes Etxeberri Ziburuko poetaren euskara-latin hiztegia¹⁹.

¹⁸ *Le Réveil Basque-n* (1888-1894) aurkitu dira berriki horren lehenengo urratsak (ikus Ruiz Uriarte, 2025).

¹⁹ Zulaika (2012) oso gomendagarria da hiztegien zerrenda eta haien nolakoa bistaratzeko, gaian sakontzeko eskura jarri duen

3. Foruak eta barneko misioak Ilustrazioaren garaian

Euskal gramatizazioaren eragile nagusia oraindik erlijioa izan arren - eta haren fruituak, %90 inguru, erlijiozko idazlanak -²⁰, XVIII. mendean aldaketa esanguratsu bat gertatu zen gramatizazioaren moduetan eta irismenean. Aldaketa hori ondo islatzen du euskararen historiako garai honi ematen zaion Lehen Euskera Modernoa (1745-1891) izenak.

Aldaketa horren berri emateko, atal honetan Borboi dinastia berria iristean Hegoaldean sortu zen kezka, bai baitzirudien foruen etorkizuna arriskuan zegoela, herriaren erlijio-heziketa egokiarekiko kezka berritu batekin lotuko dugu. Horretarako, lehenik Manuel Larramendi aurkeztu behar dugu, haren hizkuntza-normalizazio proiektua deskribatu eta horretara eraman zuten arrazoiak definitu; ondoren, XVIII. mendeak euskararen bilakabiderako izan zituen ondorioak, hala positiboak nola negatiboak, azalduko ditugu gaingiroki.

bibliografiaz gain. Gramatikei dagokienez, nahitaezkoa da Gómez (2018) aipatzea.

²⁰ Horri dagokionez, gogora dezagun Mitxelenak irri-doinuz esana (1953, 278. orr.): “Ongian ez omen daiteke gehiegirik izan, eta ezin esan gure literaturan deboziozko liburuak gehiegi direnik. Diogun, bada, bestelakoetan eskas gabiltzala.”.

3.1. Larramendi eta beraren gramatizazio-egitasmoa (1728-1745)

Manuel Larramendi (1690-1766) Andoainen (Gipuzkoa) jaio eta oso gazte sartu zen Jesusen Lagundian, non irakasle izan baitzen, lehenik Filosofiakoa Palentzian, gero Teologiakoa Salamancan, eta azkenik Valladoliden. Salamancako urteetan (1724-1729) irakasle eta predikari gisa ospe handia lortu zuen²¹. Gaztelaniaz eta euskaraz idazle bikaina ere izan zen, polemista trebea eta erretorikaren lagun, nahiz eta lanik berezienak, *Corografía de Guipúzcoa* (1754) eta *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* (1758), argitaratu gabe geratu zitzaizkion berak Lagundiarekin zituen edota Lagundiak agintariekin zituen desadostasunengatik²².

Gure istorioa hasten da Larramendik, “euskararen aurka entzuten dituen etengabeko txantxek edo isekak haserreturik” (1728², 2. orr.; itzulp. gurea) eta Espainiako Akademiaren *Diccionario de Autoridades*en lehenengo liburukiaren argitalpenak (1726) bultzaturik, bi lanabes funtsezkotan oinarritutako euskararen normalizazio-egitasmo bati ekitea bururatu zitzaionean: zehazki,

²¹ Larramendiren biografiari buruzko xehetasun gehiagotarako, ikus Tellechea (1969) eta Altuna (1992).

²² Bi lanok Tellechea Idigorasen edizioetan daude eskura (ikus Larramendi 1754 eta 1758, hurrenez hurren). Egile nekaezin horri zor diogu Larramendiren idazlan argitaragabeak zuzenean ezagutzea, bai eta haren gorabeherak ezagutzeko beste dokumentu esanguratsu gehientsuak ere; Tellecheak eman zigun, esan gabe doa, euskararen historian Larramendik jokatu zuen papera berrikusteko 80ko hamarkadatik aurrera egin diren lan guztien ezinbesteko oinarri eta abiapuntua.

gramatika bat eta hiztegi bat egiteari. Dakigunez, ez ziren lehenengoak izan (§ 2.2), baina bai argitaratzen lehenengoak, eta horrek azaltzen du - beren bertuteez gain, noski - haien ospea eta ondorengo eragina.

Izenburu zirikatzaileaz argitaratu zuen gramatikaren aurretik - *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada* (1729), hots, gerra aurrean itzuli zutenez, Ezina egina (Mitxelena 1983, 20. orr.) - Larramendiren “apologia” izenaz ezagunagoa den obra dator: *De la antigüedad e universalidad del bascuense en España. De sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas. Demonstración previa al Arte que se dará a luz de esta lengua* (1728). Hauxe da apologia gramatika baino lehen argitaratu izanari berak eman zion azalpena: “... arazoak eta ondorioak aurreikusten ditudalako, idatzi honekin aurre hartu nahi diet. Horrela Artearen liburua txikiagoa izango da, eta eragozpenetatik eta kalumnietatik aiseago eta zabalago defendatuko dut” (Larramendi, 1728, 1. orr.; itzulp. gurea).

Larramendi ez zebilen oker. Behin apologiaren lehen aleak salduta, “Irakurleari abisua” izeneko atala erantsi behar izan zion, haren tonu “zakar eta desatsegina” zenbaiti ez zitzaiela gustatu adieraziz, eta horregatik barkamena eskatzeko eta azalpenak emateko agindu ziotela nor zirenek²³. Beharbada horixe izan zen bat-batean Lagundiak, 1729ko abenduan, Valladolidera bidali izanaren zioa. Nolanahi ere, hurrengo urtean gramatika ere argitaratu zuen eta, antza denez, hiztegi erraldoiaren lehen letrak lantzen ere ari zen: *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuense y latín* (1745).

²³ Gertakari horretaz eta haren garrantziaz ikus Urgell (2025).

Larramendiren lanak ezin utzizko erreferentzia izan ziren mende eta erdiko idazle eta euskaltzaleentzat. Mota guztietako arrazoiengatik, baina batez ere politika eta gerra-kontuak tarteko, ezarri zuen paradigma ezin izan zen alderdi askotan gainditu euskal foruak osoki galdu arte (1876). Ez gaitezen aurreratu, ordea, eta ezagut dezagun aurrenik bere egitasmoa zein zen.

3.2. Larramendiren egitasmoa (1728-1745)

Larramendiren egitasmoa gaizki interpretatu da maiz. Gaztelaniaz idaztea leporatu diote eta, hortaz, euskararen egoera hobetzeaz baino kanpotarren aurrean defenditzeaz kezkatuago egotea, eta euskaraz idatziz besteen eredu ez izatea ere bai²⁴. Hala ere, kontuan hartu behar da gramatika euskaraz idaztea - eta norbaitek irakurtzea - ziurrenik pentsaezina litzatekeela, garai hartan elitea - zeinaren kidea baitzen eta zeinari zuzentzen baitzitaion bere idazlanekin - gaztelaniaz (eta latinez) soilik baitzen hezia²⁵.

²⁴ Jadanik Kardaberatz bere dizipuluak leporatu zion hori, beharbada bere obra bati buruz Larramendik idatzi zuen zentsura-txosten gogorrak sumindurik (cf. Tellechea Idigoras, 1968). Ildo horretan, 1950etik aurrerako historiografian are eragin gehiago izan zuen Ibarren *Genio y lengua* liburuak (1936): azken honetaz ikus Lakarra (1985, 12. orr.).

²⁵ Horren kontra gogora daiteke urte batzuk lehenago Joanes Etxeberri Sarakoak *Eskuararen hatsapenak* apologia eta *Eskuarazko hatsapenak latin ikasteko gramatika* idatzi zituela, ekinaren ekinez ezinezkoa ez zela argi eta garbi erakutsirik. Halere, haren obrak argitaragabe gelditu ziren, nahiz egileak diru-laguntza eskatu Lapurtarren

Oraindik eztabaidagai diren gurea bezalako kontu hauetan, kanpotiko ikuspunturen bat izatea garrantzitsua da ahalik objektiboki ena epaitzearren. Hala bada, gogora dezakegu - Janet Holmesen laguntzaz (2001, 102. orr.) - estandartze-lanetan korrelazionaturiko urrats jakin batzuk egon ohi direla: (1) bariedadea hautatu; (2) haren hizkuntza-ezaugarriak kodetu; (3) haren erabilera alor berrietara hedatu, horretarako beharrezkoak diren hizkuntza-baliabideak ere sortuz (2. eta 3. puntuen batuketari "corpus plangintza" esan ohi zaio); (4) haren onarpena bermatu, "haren prestigioa areagotuz, adibidez, eta jendea bere hizkuntzarekiko harrotasuna edo leialtasuna sentitzera bultzatuz" ("estatus-plangintza" termino soziolinguistikoetan; itzulp. gurea).

Larramendik, ikuspuntu horretatik, (1) ez zuen bariedade zehatz bat hautatu, baizik eta haren egitasmoa plurizentrikoa da: "Euskalki guztietan mintzatzeko eta idazteko [egile greziarren] askatasun hori da euskaldun guztietan sartu nahiko nukeena" (1745, clx; itzulp. gurea). Ondorioz, (2) gramatikan euskararen hiru euskalki nagusitzat hartzen zituenak kodetu zituen: gipuzkera, bizkaiera eta nafarrera edo lapurtera. Gainera, (3) euskararen ahalbideak zabaltu zituen *in folio* tamainako 828 orrialdeko gaztelania-euskara-latin hiztegi baten bitartez, gaztelaniazko hiztegiarik osatu eta eguneratuenaren, Espainiako Akademiaren *Diccionario de*

Biltzarrari (ikus Bilbao, 2006), eta horrek gure goiko hipotesia bermatzen du, naski.

Autoridades-en (1726-1739), nomenklaturan oinarriturik²⁶. Euskal osagaiak hiru iturri nagusi ditu, hitzaurrean ederto azaldu zituenak (Larramendi, 1745, xliii-liv): euskal liburuak, landa-lana eta neologismoak. 1728ko lehenengo lanean jada ezarri zituen hizkuntzen lexiko-aberastasunaren eta euskararen lexikoa eguneratzeko moduei buruzko irizpide orokorrak jarraitu zituen hitz berriak egiteko. Azkenik, (4) egitasmoaren onarpena bermatu zuen apologiaren bidez, non bere eginkizuna justifikatzen baitu sutsuki defendatuz - “bere hizkuntzaren defentsan dabilen euskaldun baten aire sutsu, haserre eta zakarraz” -²⁷ euskararen *perfekzio eta abantailak hizkuntza askoren aldean*, obraren izenburuak dioen bezala.

Laburbildurik, Larramendirena hizkuntza-plangintza egitasmo oso bat da, hiru lanez osatua - apologia, gramatika eta hiztegia -, hasi eta buka diseinatua eta gutxienez 18 urtez burutua (1728-1745). Helburuak planifikatzaile batenak dira: bere hizkuntzaren egoera soziolinguistikoan eragitea, haren prestigioa areagotzea, haren gaitasunak

²⁶ Horrezaz gainera, hiztegiak 229 orrialdeko hasierako azterlan bat ere badu. Nahiz hiztegiko A-Z atala horren handia izan, *Diccionario de Autoridades*eko sarrerak eta azpisarrerak nabarmen bakandu zituen, sarreren kasuan % 25 (Urgell, 1999, 160. orr.).

²⁷ Hauxe ere idatzi zuen: “...zeinak, euskararen aurka entzuten dituen txantxa eta isekak jota, arma berberak erabiltzen baititu bere erara, eta bere burua defendatzen saiatzen da Jainkoak laguntzen dion bezala, bere herriko ausardia apartak eraman dezala utzirik, esaldiak biribiltzen gelditu gabe, neurritsu eta begirunetsu izateari begiratu gabe” (Larramendi 1728, “Advertencia al lector”; itzulp. gurea).

garatzea eta haren erabilera alor berrietara zabaltzea²⁸, horretarako ezinbestekoak diren tresna egokiak eskainiz. Izan ere, Lakarrak (1985) erakutsi zuenez, bere hitzak irakurtzea besterik ez dago horretan zebilela jakiteko.

3.3. Larramendiren zioak

Gorago aipatu dugu Larramendi aspaldiko partez euskarari buruz etengabe entzuten zituen “txantxek edo isekek haserreturik” zegoela. Hala ere, goragoko motiboak - eta bereak, ez besterenak - azaldu zituen gramatikaren hitzaurrean:

Hain azterketa arantzatsuan sarrarazi ninduen bultzada ez zen soilik gure **hizkuntza** goratzeko eta ohoratzeko, eta horrela **sorterriari** ospea emateko grina. Beste bat zen, handiagoa eta nire izaerari hobeki datorkiona, eta Euskal Herri osora zabalduko dela espero dudan ontasun eta erabilgarritasun handian datza. Han hizkuntza hori [euskara] beharrezkoa da, eta erromantzeak oso gutxi balio du jende gehienarentzat; bestalde [...], haren [euskararen] fintasunak, esapideak, askotariko eraketa egokia alde batera uzten dira, edo oso berri gutxi dago horri buruz. Hortik dator eskuarki ez predikatzea hizkuntzak ahal duen adierazgarritasun eta eraginkortasunaz; gutxi izatea egiteko horretan saiatzen direnak; beste batzuk zailtasunak beldurturik egotea; **kristau dotrina** behar den bezala ez azaltzea; egiteko garrantzitsu horietarako liburu baliagarririk ez egotea; inor

²⁸ “Orain euskara beste egoera batean dago, eta edozein zientzia eta fakultatetan erabilia izateko prest; eta oraindaino izan ez dituen hitz egokiak bilatzeko aukera da” (Larramendi, 1745, xlviii; itzulp. gurea).

ez ausartzea beste hizkuntza batetik itzultzeraz
(Larramendi, 1729, ¶¶ 7r-v; itzulp. gurea).

Larramendiren zioak laburbiltzen dituzten hiru termino letra lodiz nabarmendu ditugu: hizkuntza, sorterria eta erlijioa²⁹. Euskara “goratu eta ohoratu” nahi izan zuen³⁰, horrela sorterriari - ziurrenik “Gipuzkoako Probintziari” ulertu behar dugu -³¹ prestigioa emanik. Pasarte horretan gure lanaren bi hitz gakoak islatzen ditugu: lehen zatia azpian *foru* hitza dago, eta berehala mintzatuko gara horretaz. Bigarrena agerikoa da, euskaraz predikatzeari eta horretarako balio duten liburuak itzultzeari buruzkoa baita, izan ere.

Ez da axola gutxikoa jakitea bide horretan guztian Gipuzkoako Probintziaren laguntza izan zuela, gramatikaren nahiz hiztegiaren kostuak bere gain hartu

²⁹ Larramendik hiru hitz proposatu zituen gaztelaniazko *patria* sarreran: *erria*, *sorterria* eta *jayeterria*. Bigarrena hautatu dugu, Sabino Aranak sortutako *aberria* geroko neologismoaren ordeez.

³⁰ Erdaraz *ilustrar* erabili zuen Larramendik, eta aditz horrek adiera asko ditu: ‘azaldu, argitu’, ‘irakatsi’ eta ‘jakituriaz hornitu’, besteak beste, erabat ezinezkoak ez liratekeenak beharbada. Guk *goratu*-ren sinonimotzat hartzea erabaki dugu, segidan *ospea eman* ere agertzen delako: itxuraz, bada, hirurek ideia berari eusten diote.

³¹ Garai hartako Euskal Herrian ohikoa zen nork bere lurralde edo probintzia hartzea “komunitate irudikatutzat”, Andersonnek esapide horri eman zion adieran (2011), hau da, norberak bere burua kokatzen duen munduko lekuaren adieran. Gai horretaz, ikus Urgell (2018, 564-565. orr.) hurbilketa azaleko baterako eta dagokion bibliografia ezagutzeko.

baitzitu³². Sorterriko eliteekiko lotura hori dela eta, Larramendi eta bere gramatizazio-egitasmoa bere lurralde kutunaren foruen defentsarekin erlazionatzeari ekingo diogu. Besteak beste, Gipuzkoari eskaini zion *Corografía* bikaina (1754), XVIII. mendeko gaztelaniazko lanen artean dudarik gabe merezi duen estimua oraindaino izan ez duena.

3.4. Foruak

3.4.1. *Foruak Espainian: historia apur bat*

Ez dago hemen gure esparrutik kanpoko gai luze eta konplexu hori azaltzerik, ezta laburbildurik ere; beraz, gure helburuetarako testuinguru beharrena ezar dezaketen pintzelada batzuk ematera mugatuko gara.

Carlos II.a Espainiakoa ondorengorik gabe hil (1700) eta Ondorengotza Gerra hasi zen (1701-1713). Ataka horretatik Felipe V.a atera zen garaile, Espainiako lehen Borboia. Berehala, Oin Berriko Dekretuek (1707-1716)

³² Espainiako Historiaren Errege Akademian, “Jesuitas 62” izeneko paper-sortan, Manuel Ignacio de Aguirrek Probintziaren izenean Larramendiri zuzendu zion 1728ko maiatzaren 28ko gutuna gorde da, Larramendiren argitaragabe askoren artean. Gutun horretan Probintziak jakinarazi zion gramatika argitaratzeko behar beste diru emateko erabakia hartua zela (gutuna Urgell [2026] lanean argitaratuko da). Ziurrenik apologia - azken orduko erabakia baitirudi, ikusi dugunez - Juan Idiakez Felipe V.a Espainiako erregearen gorteko figura guztiz eraginkorrak ordaindu edo ordainarazi zuen, Larramendik liburua berari eskaini baitzion. Gipuzkoako Probintziarekin Idiakezek zeuzkan lotura ezin garrantzitsuagoei buruz nahitaezkoa da Guerrero Elecalde (2012).

Aragoiko, Mallorcako eta Valentziako erresumetako eta Kataluniako Printzerriko legeak eta erakundeak indargabetu zituen.

Indargabetzea beste hautagaiaren, Karlos Austriako artxidukearen, alde egin zuten lurralde horien aurkako mendekutzat har daiteke, Filipe V.ak bere aliatu euskonafarren pribilegioak eta erakundeak mantendu baitzituen. Hala eta guztiz ere, Euskal Herrian aurrekari arriskutsutzat hartu zen: alegia, beldur ziren Frantziako dinastiak ez ote zekartzan Gaztelako erregearen - Larramendik bere idatzietan hala deitzen dio - eta bere menpeko lurralde bakoitzaren artean adostutako politika zaharrarekin bat ez zetozen gobernu-ideiak.

3.4.2. Larramendiren “beste” obrak

Valladolidera iritsi eta gutxira, apika Lagundiak Salamancatik urrundua bere apologiaren tonu “zakar eta desatsegina” zela-eta, Mariana Neoburgeko ama-erreginak deitu zion Baionako erbestean beraren aitorle izan zedin, eta han izan zen hiru urtez (1730-1733).

1732an *Discurso histórico sobre la antigua Cantabria* amaiturik haren hitzaurrea idatzi zuen, nahiz argitaratzea 1736ra arte atzeratu; Fernando Asturiasko Printzeari eskaini zion liburu horretan Kantabria erromatarra Hego Euskal Herriarekin identifikatzea aldeztu zuen, eta ez dirudi oker geundekeenik esango bagenu liburuaren gaia foruen etorkizunari buruzko kezka harekin loturik dagoela. 1732an Sevillan zegoen, ama-erreginak bidalia baitzen Felipe V.aren gortean beraren izen ona defenda zezan. Bizipen hori arras traumatikoa izan zen Larramendirentzat,

eta han bertan “munduko zarata” berehala uztea erabaki zuen. Baionara itzuli eta, bere ugazabandrearen baimenik lortu ezinik, Donostiara ihes egin zuen, eta handik azkenean lortu zuen helburua: Loiolako santutegira erretiratzea, non bizi izan baitzen 1766an zendu arte.

Bere “beste” lanak eskuizkribuan geratu ziren, eta haietatik bereziki interesatzen zaigu *Sobre los Fueros de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa* (1758).

Lan horretatik bi ideia nabarmenduko ditugu, ediziogile modernoaren hitzaurrean ederto adierazirik aurkitzen ditugunak (Tellechea-Idigoras, 1983). Lehen, Gipuzkoaren gaineko mehatxua: “Bere ustez, Madrilgo diaristak, Akademiak, jakintsu handi batzuk, guri mendeetako loria kentzen tematurik daude, gure hizkuntzagatik gu barbaro eta kulturgabetzat jotzen, (...) *apurka-apurka gure Foruak, gure salbuespenak eta gure askatasun guztia kentzen*” (*op. cit.* xxiii-xxiv; etzanez dauden hitzak Larramendirenak dira; itzulp. gurea). Bigarrena, gipuzkoarretan - eta, oro har, euskaldunetan - antzematen zuen gogogabetasuna: “Horrelako mehatxuen aurrean (...), inork ez zuen luma hartzen herria, haren hizkuntza, askatasuna eta pribilegioak defendatzeko; axolagabekeria, norberaren onura, askatasunaren estimazio urria, eta sorterriaren eta bertako guztien onaren maitasunik eza ziren nagusi” (*idem*).

Larramendik bere herrikideak iratzarri nahi lituzke: baina nola?

3.4.3. Larramendiren “ametsa”

*Sobre los Fueros de Guipúzcoa*ko 4. eta 5. hitzaldietan (1758, 55-76. orr.) Gaztelako Erresumak foruei eta salbuespenei buruz etengabe eztabaidatzeaz gogaiturik Gipuzkoa jaurtiko balu zer gertatuko litzatekeen, eta hipotesi horretaz egiten du gogoeta Larramendik. Halako egoera sortu eta geroko Probintziaren irudizko Batzarrean aurrenik kontuan hartzen dute Britainia Handiaren edo Frantziaren babespean jartzea, baina orduan “zaldun zahar batek” - aguretu xamarturik - hitza hartzen du. “Patxadaz hartu zuten, hitz egiten utzi zioten, eta entzule guztiei amets egiten ari zela iruditu zitzaien” (Larramendi, 1758, 57. orr.; itzulp. gurea)³³.

Egin dezagun eten txiki bat, ia-ia alferrikakoa, ametsa egia mozarrotzeko literatur baliabide ezaguna dela gogoratzeko (cf. Gómez Trueba, 1999). Fikziozko batzarrean txertatutako agure xaharrak - erreparatu Larramendik bere ideia adierazteko eraikitzen dituen suebakiei - kontatzen du, loaren eta esnatzearen arteko egoeran, “itzal bat, bulto bat, mamu bat” agertu zaiola, “Gipuzkoako *demon* eta jeinua” dela dioena (*ib.* 57), eta galdetu diola: “Hizkuntza hilek zeinek bere nazioa izan bazuten eta gaur egun bizi direnekin beste hainbeste gertatzen bada, zergatik ez ditu euskarak, beste edozein hizkuntza bezain bizia eta beste edozein baino biziagoa den hizkuntza honek, ikusi behar bere euskaldun guztiak elkarrekin bildurik, beste hizkuntzetatik eta nazioetatik

³³ Biziki gomendagarria da edizio gileak egindako ametsaren interpretazioa (Larramendi, 1758, xliii-l). Atal honetan liburu horretatik jaso diren pasarte guztien itzulpena gurea da.

aske legokeen nazio bat eta bakarrean?” (ib. 58). *Demonaren arabera*, nazio berria euskal probintzia guztiek osatuko lukete: “Pirinioetako Probintzia Batuak izena hartuko genuke” eta “Errege bat aukeratuko bagenu, Kantabriako izendatuko litzateke” (ib. 58 eta 60)³⁴.

Idea onartzen dute fikziozko batzarkideek. Batzarburuak ere onesten du, eta gaineratzen: “Bermatuko dugu ezein kanpotarrek ez diezaiola Senatuari ahoz zein idatziz hitz egin euskaraz baizik, ezta erantzun ere hizkuntza horretan baizik, eta guztiek ikasi beharko dute” (ib. 70). Hala ere, pixkanaka-pixkanaka batzarburuak bere jarduna aldatzen du eta, azkenik, ideia burutzeko zailtasunagatik geroratuko du: “Dena izan liteke horrela Gaztelak bakean utziko bagintu, Frantziak denbora emango baligu” (ib. 71).

Foruei buruzko liburu honek, orokorrean, eta azaldu berri dugun pasarterik zirikatzaile eta berritzaileenak Larramendiren egitasmoaren azpian hausnarketa politiko foruzale - *avant la lettre* - bat dagoela erakusten digute, batzuek aurre-nazionalistatzat hartzen dutena³⁵. Euskarari buruzko bere lanetan foruzaletasun horren frogak bilatu beharko lirateke: liburuaren ontze data ikusirik, ezin dugu baztertu hausnarketa hori Loiolan egin izana, dudarik gabe hara zenetik aurrera Probintziaren arazo eta auziak hurbilagotik ezagutzeko parada izan baitzuen.

³⁴ Ediziogileak esan bezala (Tellechea Idigoras, 1983, 64. orr., 11. oh.), izendapen hori Herbereetako Probintzia Batuen izenaren eta gertakariaren eredura egina da.

³⁵ Horri dagokionez, eztabaida interesgarri bat dago Lakarrak (1992) bilduriko Arzalluz, Fernández Albadalejo, Monreal eta Elorzaren lanetan.

3.4.4. Esnatzea

Felipe V.ak piztutako susmoak mendeak aurrera egin ahala hazi egin ziren. Karlos IV.aren garaian Godoy (1792-1797) aipatu ohi da euskal foruen aurkako diskurtso guztiak sustatzen zituen esku beltza bailitzan. Dena den, Madrilen jende anitz zebilen argudioak biltzen, foruak ezabatzearen alde ez ezik, gure garaian “euskal egitate diferentzialak” deitu izan direnen aurka, baita hizkuntzaren aurka ere, noski.

Bitartean, Hego Euskal Herrian baserri-giroko oligarkia foruzale bat eratu zen, Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen inguruan antolatua. Larramendiren ildoan, halakoen iritzian hizkuntza da euskaldunen berezitasuna defendatzeko argudiorik sendoena, foruen berme nagusia, eta hori dela-eta Pablo Astarloa jakintsuaren hizkuntza lana finantzatzeari ekin zioten³⁶.

1802an *Diccionario geográfico-histórico de España* Joaquín Traggiak (1748-1802) idatzitako *Nabarra* artikulua argitaratu zen, non bai euskarari, bai euskal foruei eraso egin zien. Foruzaleek berehala bidali zuten Astarloa Madrilera, bere *Apología de la lengua bascongada ó Ensayo crítico filosófico (...) en respuesta a los reparos propuestos en el diccionario geográfico histórico de España, tomo segundo, palabra Nabarra* (1803) idaztera. Astarloaren gainontzeko lana, garrantzitsuena, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o Gramática y análisis razonada de la euskara o vascuence*, ez zen 1883. urtera arte argitaratu. Garai zailak

³⁶ Astorganok (2003) Astarloaren lanen eta haien inguruabarren ikuspegi berri eta osagarri honen euskarri diren dokumentuak erreskatatu eta interpretatu ditu.

izan ziren euskarazko eta euskarari buruzko argitalpenetarako, ikusiko dugunez (§ 3.6.1).

3.5. Barneko misioak

Dakigunez, Larramendik euskararen normalizazioan lan eginarazi zioten arrazoiaren artean “beste [bultzada] handiago eta nire izaerari gehiago dagokiona” aipatu zuen - izaera kasu honetan elizgizona izatea da -. Berak azaldu zuenez, euskara “jende gehienarekin” erabili beharraren eta euskaraz predikatu behar zutenen euskarazko prestakuntza ezaren arteko tentsiotik dator. Gogora dezagun haren testigantzaaren amaiera³⁷: “Hortik dator normalean ez predikatzea hizkuntzak ahal duen adierazgarritasun eta eraginkortasunaz; gutxi izatea egiteko horretan saiatzen direnak; beste batzuk zailtasunak beldurturik egotea; kristau dotrina behar den bezala ez azaltzea; egiteko garrantzitsu horietarako liburu baliagarriak ez egotea; inor ez ausartzea beste hizkuntza batetik itzultzera”.

3.5.1. Ilustrazioaren kontraesanak

Barneko misioak aipaturik bestela badirudi ere, dena ez dago komentu eta elizetan. Badakigu Gipuzkoako Probintziak finantzatu zituela Larramendiren lanak eta, hortaz, badago geure buruari galdetzea funtsean erlijiosoa dirudien egiteko bat zergatik interesatzen zitzaien botere publikoei. Ezin da sinetsi hizkuntza-normalkuntzako

³⁷ Aipu osoa gorago eman dugu (§ 3.3).

programa instituzional baten parte zenik, Probintziak ez baitzuen inolako neurri osagarriarik ezarri, ez hizkuntzaren erabilera ofizialean, ez hezkuntzan, ezta beste ezertan ere.

Larramendik jasotako laguntza hori ilustrazioak sortutako mugimenduei buruz Burke-k (1991) egindako analisisan oinarrituz azaltzea proposatzen dut, eliteen hizkuntza-jokabideak ere barne harturik³⁸.

XVIII. mendean, Europako elite ilustratuak nahita herriarengandik aldentu ziren, aurretik harekin partekatzen zuten guztia alde batera utzirik: euren ustez sineskeriaz betea den erlijiotasuna, higieena, ohiturak (dantzak barne), etab. "Elite zibilizatzaileek" - hala deritze - gurea bezalako kasuetan herriaren hizkuntza ere abandonatu zuten, zeren eta nork bere estatu-hizkuntza zibilizazioaren adierazpide bakartzat baitzuten.

Hala bada, Hego Euskal Herrian ere nolabaiteko mailako eta ikasketetako gizonak geroz eta gutxiago ziren euskaraz gustura aritzen zirenak, eta gehiago euskaraz egin nahiago ez zutenak: "Gehienetan beren erdara bitxian hitz egiten dute, eta euskaraz gehiago eta gogoeta gehiago eginaz ikasi beharrean, umetan zekiten apurra ere partez ahazten dute" dio Larramendik (1754 [1969], 284. orr.) atzerrira ikastera joandakoei buruz. Halaber, "[e]uskara abarkadun, maizter eta txiroentzako hizkuntza baino ez dela[ko]" ustea finkatzen ari dela diosku (*ib.* 287; itzulp. gureak).

Larramendiren zerrendaren buruan elizgizonak eta erlijiosoak daude: deabruaren lana egiten ari direla dio.

³⁸ Esteban-en (2013) lanak ikusarazi zidan interpretazio hori, berak bere tesian (Esteban 2018) oso urrutira eraman duena.

Batzuk beren zereginak behar bezala egiteko beren euskara hobetzen saiatzen ez direlako: "...deabruak lortzen du euskarazko sermoiek ez dezaten inolako eraginik izan edo fruiturik eman" eta "...aitorleek beren egiteko sakratua oso gaizki bete dezaten" (*ib.* 285-286; itzulp. gurea). Beste batzuk ez dira Euskal Herriko hizkuntza erabiltzen saiatzen ere: "Sinistéraro nai digute aditzen dala Gaztelania, are icasi ez dútenen ártean. Eztá hori eguia: alpérren eráusiac eta aitzáquiac dirade: hitz banácaren bátzuec adituágatic, aiceác dáramatzi bésteac" deitoratu zuen Larramendik (1747, 278. orr.).

Gogoeta horiek hasieran egin dugun galderari erantzuteko beta ematen digute. Ez nuke zalantzarik boteretsuek Larramendirekin partekatzen zutela "gure hizkuntza goratzeko eta ohoratzeko grina", baina uste dut herriaren hezkuntza erlijiosoarekiko zuen kezka ere partekatzen zutela, herritar gehienak euskaldun elebakarrak baitziren³⁹. Ezin ahanzi elizgizonak euskara alde batera uzteak ordena soziala arriskuan jar zezakeela, Elizak baitzuen herria hezteko ardura, ez bakarrik kristau dotrinan, baita ohitura onetan eta agintariekiko errespetuan ere⁴⁰.

³⁹ "Egia berdaderoa da Gipuzkoaren hiru laurdenek ez dutela gaztelania ulertzen. (...) eta are gainerako gehienek ozta-ozta dakite gaztelania gehiago euren lanak eta tratuak kudeatzeko behar dutena baino" (Larramendi, 1754, 285. orr.; itzulp. gurea).

⁴⁰ Horri dagokionez, oso esanguratsua da honako pasarte hau: "Batzuetan ez da euskaraz edo entzuleen ohiko hizkuntzan predikatu behar, hain zuzen agintzen, zuzentzen eta gobernatzen dutenei buruzko gaiak jorratzen diren sermoietan: horrelakoak ez dira edozein entzulerentzat, eta ez da arrazoizkoa horiek jakitea zeinen

3.5.2. Barneko misioak: zergatik, nork eta nola

Denbora batez uste izan dugun arren Larramendik abian jarritako mugimendua Euskal Herriari eta bere egoera zehatzari zegokiola, barneko misioen mugimenduekin erlazionaturik dagoela aitortu behar dugu orain.

XVIII. mendean aldaketa handi bat gertatu zen Hegoaldean, XVII. mendetik aurrera Europa osoan, batez ere Espainian, “barneko misio” direlakoekin lotu beharrekoa. Barneko misioak katolizismoaren oinarriak sendotzeko Trentoko helburuekin jaio ziren, eta gero jendearen bizitzan eragiteko eta erlijiotasun berri bat zabaltzeko xedeak erantsi zitzaizkien.

XVII-XVIII. mendeetako Espainiako barneko misioak Rico Calladok (2002) aztertu ditu. “Kanpoko” misioetan lortutako esperientziatik abiatutik, Elizak erabaki zuen Europako landa-inguruneko - “gure Indiak” - erlijiotasunean eragin behar zuela misiolariak bidaliz (Rico Callado, 2002, 548. orr.). Euren egiteko nagusia ez zen dotrina predikatze hutsa, batez ere fededunak konbertitzea eta bekatua bertan behera uztera gonbidatzea baizik, zeren eta etsita baitzeuden Europako jendeak eredu kristautik urrun bizi zirela. Bekatutzat herri-ohitura asko ere hartu ziren, erromeriak eta dantzak esaterako, ilustratuek ere gaitzesten zituztenak.

Eragileak berak izango dira non-nahi: erlijio-ordenak, zehazki frantziskotarrak, jesulagunak eta

gaizki gobernatuak diren eta zer-nolako bekatuak egiten dituzten agintariek beren gobernuan (...)” (Larramendi, 1754, 289. orr.; itzulp. gurea).

kaputxinoak, nahiz eta aurrerago elizgizon erregularrak sekularrek ordezkatu zituzten (*ib.* 548). Helburua ere bat eta bera izango da: mundu mailako konkista katolikoa (*idem*). Barneko misioen ezaugarririk esanguratsuenetako bat idatzizko lanen zabalkundea izan zen: katiximak eta debozio-liburuak (*ib.* 9).

3.5.3. *Euskal misioak*

Frantziskotarrek Zarauzko komentua misiolari mintegi bihurtu zuten 1746an, euskal predikariak prestatzeko asmoz, eta bertako misiolarien lanak Larramendiren onespena lortu zuen handik laster:

Zalantzarik ez, azken urteotan euskara lehen baino hobeto predikatzen da, eta badaude sermoi moraletan guztiz ondo eta argi egiten duten predikatzailerak, entzuleen atsegin eta onurarekin. Horrela egin ohi dute misiolariak beren sermoietan, eta bereziki Zarauzko misiolari frantziskotarrek, beren bertute handiari (...) euskara argi, ulergarri, garbi eta ordenatuan predikatzekeo ardura eta lana gehitu baitiote, hizkuntzaren izaeraren eta sintaxiaren arabera, eta beren praktikarekin euskaldun nagien funsgabeko kexuak ezeztatzen dituzte (Larramendi, 1754, 291. orr.; itzulp. gurea).

Hiztegiaren argitaratze urtearen inguruan (1745) jesulagunak hasi ziren Ricok barneko misioekin lotzen dituen lan motak euskaraz argitaratzen, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako misioetan aktiboki parte hartzeaz gain.

Har dezagun gaia goragotik. Ondo egindako misiolari lanak, oro har ondo egindako predikazioak, aurrez idatziz prestatzea behar du eta lan horrek aztarna asko utzi ditu euskaraz. Larramendik goraipatu zituen frantziskotar haien eskuizkribu ugari gorde dira, besteak beste, argitaratuz doazenak⁴¹.

Nafarroan ere dozenaka katixima eta sermoi gorde dira eskuizkribuan, azken urteotan argitaratu direnak. Horiek, oro har, herrietako parrokoek egindakoak dira, gehienbat XIX. mendekoak, baina inoiz lehenagokoak ere bai. Egilerik ezagunena eta beharbada emankorrena Joakin Lizarraga Elkanokoa (1748-1835) dugu, lan ugari idatzi eta txukun berridatzi baitzituen, sermoiak, koplak, santuen bizitzak, ongi hiltzeko laguntza liburu bat, eta abar. Jarraian ikusiko dugunez, ez da kasualitatea Lizarraga jesulagun izatea bere lehen urteetan, nahiz gero ordena utzi - jesulagunen kanporatzearen urteak dira - eta apaiz bihurtu 1774an.

Esan bezala, argitaratutako lehen emaitzak - eta, beraz, ezagunenak - Larramendi bezalako jesulagunei dagozkie. 1745 ingurutik hasi eta Espainiatik kanporatuak izan ziren 1767. urtera bitartean euretako bik sortu zituzten literatur gipuzkerazko lehen lanak: Agustin Kardaberatz eta Sebastian Mendiburu. Beren lehen idazlanak zorrotzasunez zuzendu zituen Larramendik berak, eta katiximak, debozio-liburuak, santuen bizitzak, etab. egin zituzten. Horrela, Mendibururen *Jesusen*

⁴¹ Ikus Etxebarriaren katalogoa (2005). Euskal Herriko mendebalean Ulibarrik (2015, 286-297. orr.) "predikazio garaiko hizkuntza" delako bat izan zela erakutsi du, zehazki estandar oinarritzko eta eskematiko bat, ezaugarri gutxi batzuek eratzen zutena.

bihotzaren debozioak sarrera gisa Larramendik egileari idatzitako gutun bat darama (Larramendi, 1747), lanaren laudoriotan egina, baina baita sortzen ari ziren estandarraren gaineko bere irizpideen - batez ere lexikoen - azalpena ere badakarrena. Urte berean argitaratu zen *Cristaven doctrina* anonimoa, egun “Burgosko dotrina” deritzoguna: jatorriz Mendibururen lana da, baina haren jatorrizko testuaren gaineko Larramendiren eskuzko zuzenketa ugariak gorde dira, dotrinaren azken bertsioaren oinarri direnak (Altuna, 1982; Lakarra, 1986)⁴².

Bultzada horrek literatur gipuzkera Hegoaldeko koine mailara igoko du; horren isla da Juan Antonio Mogel, Pedro Antonio Añibarro eta XIX. mendeko bizkaierazko beste idazle batzuek, baita beranduago Txomin Agirrek ere (1864-1920) aurreneko lanetan, gipuzkera erabiltzea irakurleria orokorragoari edota goi mailakoari zuzendu nahi zitzaizkionean. Horixe da, halaber, “mugaz gaindiko” Bizenta Mogelen kasua (1782-1854), Azkoitian jaioa baita (Gipuzkoa), Markinan (Bizkaia) hazia eta Abandon (Bilbo) bizia.

⁴² Gainera, Kardaberatzen idazlan baten gaineko Larramendiren irizpena eta egilearen erantzuna gorde dira (Tellechea Idigoras 1968), bai eta Larramendiren eskuzko zuzenketak ere Loiolako jesulagun ezezagun baten sermoietan (Segurola 2004).

3.6. Larramendiren egitasmoaren ondorenak

3.6.1. *Historia balazta gisa*

Larramendik bultzatutako normalizazio proiektua ez zen guztiz ondo atera. Kardaberatzek San Inazioaren bizitzari buruz egin zuen lan baten harira, Espainian euskal liburuak argitaratzeko lehendabiziko debekua - artean Gaztelako presidentea zen Arandako kondearen aginduz - eman zen urte berberean hil zen bera (1766). Aginduak hitzez hitz honela dio: “Honi [San Ignazioen bizitza euskaraz argitaratzeak lekartzakeen eragozpenei] gaineratu behar zaio gaztelaniaz beste hizkuntza batean ezer inprimatzeko eragozpen politikoa, hori Nazio osoan baita ulergarri, eta hala, orokorrean [Nafarroako] Kontseilu honek ez diezaiera halakoei baimenik eman, nire [Gaztelako presidentearen] jakinarazpen berezirik izan ezean” (*ap.* Esteban, 2018, 130. orr.; itzulp. gurea). Baliteke debekua Jesusen Lagundiaren orduko egoera zailarekin lotua izatea.

Izan ere, jesulagunak hurrengo urtean kanporatu zituzten Espainiatik eta beste herrialde batzuetatik. Horrek behin betiko geldiarazi zuen Kardaberatzen eta Mendibururen lana: Italiara erbesteratu ziren, non idazten jarraitu arren ez zuten herrialdean zuzenean eragiteko aukerarik izan⁴³. Izan ere, esango nuke euskal idazle eta euskalarien artean ez dagoela beste jesulagun aipagarririk Jose Ignacio Arana (1838-1896) arte, urte zail haietan

⁴³ Mendibururen idazlan argitaragabeak gorde dira, eta Altunak (1982) argitaratu ditu.

Lagundia utzi eta apaizturik ikusi dugun Lizarraga Elkanokoa alde batera utzirik.

Eta hara non Frantziako Iraultza datorren (1789-1799). Horrek jadanik aipatu dugun Iparraldeko literaturaren gainbehera nabarmena areagotu besterik ez zuen egin (§ 2.2). Idatzirik berritzaileenak argitara gabe geratu ziren: *Kadet eta Bettiriño* elkarrizketa pedagogikoa (c. 1750), *Birjinia* frantses eleberri ospetsuaren itzulpena, Duhaldek egina (1783-1784), eta Egiategiren lan filosofiko-morala (1778-1785), denak ere Larramendiren hiztegiaren laguntzaz idatzitakoak. 1784 eta 1838 artean liburu garrantzitsu bakarra argitaratu zen (Duhalderen *Meditazioneak*, 1809), eta erlijio-liburuen berrargitalpenak datarik gabe edo aurredatatuak atera ziren, isil-gordeka.

Madrildik eta Parisetik zetozen debekuei, Euskal Herria suntsitu zuten iraultza eta gerra garaiak elkartu zitzaizkien: Konbentzioaren Gerra (1793-1795), Independentzia Gerra (1808-1814) eta Lehen Karlistaldia (1833-1839). Garai hartako Frantziako zein Espainiako politika nahasia ere aipatu behar da.

Nolanahi ere den, ondorioa mende bat baino gehiagoko atzerapena da, Astarloaren *Discursos filosóficos* 1883an argitaratu izanak - egilea hil eta 76 bat urte geroago - lehenagotik ikusarazi digunez. Arandaren aginduaren ondoren, liburu txiki xamarrek baino ez ziren argitaratu Hegoaldean ere. De la Quadrak (1784) honako hau idatzi zuen bere bi liburu argitaragabeetako baten hitzaurrean: "...Madrildik ohartarazi gaituzte euskararekiko ezinukusi izugarriaz, eta horregatik [argitaratzeko] baimena eskatzea eta ukatzea dena bat izango da" (ap. Bilbao, 1998, 165. orr.; itzulp. gurea). 1793an Añibarrori *Esku-liburua*

argitaratzeko baimena ukatu zitzaion (Urkizu, 2000, 236. orr.).

1800ean, Nafarroako Kontseiluari Espainiako erregeak agindu zion ez zezala Mogelen *Confesio...* argitaratzearen aurka egin, ezta euskaraz idatzitako beste ezeren aurka ere, erlijioaren kontrako dotrinarik jaso ezean. Honela goretsi zuen Mogelek berak agindu hura: "Hau bai garaipena gure hizkuntza zapalduarentzat!" (ap. Villasante, 1964, 73. orr.; itzulp. gurea). Mariano Luis Urquijo ministro bilbotarrari esker lortu omen zuen baimen hura eta, horren ostean, bi frantsesteen artean, Mogelen (1800 eta 1803), Añibarroren (1802 eta 1803), Agirre Asteasukoaren (1803) eta Bizenta Mogelen (1804) liburuak argitaratu ziren bata bestearen ondoren. Hala ere, badirudi Gerrikori bere sermoitegi erraldoia argitaratzeko oso-osorik itzultzeko baldintza ezarri zitzaiola (1805; Villasante, 1979, § 251) eta horregatik ez zuela 1858ra arte argia ikusi. Gerra zela-eta atea berriro itxi zuten 1816ra arte, Frai Bartolomereren bi obrak (bata 1816; bestea 1816, 1817 eta 1819, hiru liburukitan), eta Juan Jose Mogelena (1816) zein Pedro Astarloarena (bi liburuki, 1816 eta 1818) erreskadan agertu ziren.

Ondorioak garrantzitsuak dira. Esate baterako, Iparraldean bezala Hegoaldean ere erlijiotik kanpoko gaiak jorratu zituzten lehen liburu luzeetako bat - euskal literaturaren oinarritzko mugarrietako bat ere bada, gainera -, Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka*, 1802an idatzia, ezin izan zen 1881 arte argitaratu, eskuzko kopiatan nahikoa zabaldu bazen ere (ikus Altzibar, 1990). Era berean, gramatika eta hiztegi guztiak argitaratu gabe geratu ziren eta Larramendirenen berrargitalpena ere ez zen eskuragarri

izan 1853 arte⁴⁴. 1880 inguruan lehen aldiz inprimatu ziren hainbat oinarritzko obra, hala nola Astarloaren hizkuntzalana (ca. 1800), lehen aipatua, eta Aizkibelen hiztegia (ca. 1839).

Laburbildurik, bi Karlistaldien arteko tartean (1840-1872) eta, batez ere, azken foruen galeraz gerozko urteetan (1876) - “Euskal Pizkundea” izena eman ohi zaionaren hasieran, bada -, orduko lanak ugari argitaratzeaz gain, “garai iluneko” lan handiak lehen aldiz inprimatuak edo berrargitaratuak izan ziren Hegoaldean.

3.6.2. *Balantzea*

XVIII. mendetik aurrera euskal eliteen pentsamolde eta portaeraren aldaketek euskarari prestigioa galarazi zioten, eta txiroen eta eskolatu gabekoen hizkuntza gisa estigmatizatu zuten⁴⁵. Ondorio zuzen modura, horrek euskara desagertarazi zuen herri askotatik, belaunaldi batetik bestera desagertarazi ere, lehenik Arabako eta gero Nafarroako erdialdeko eremu populatuenetan; halaber, erdaren presentzia areagotu zen barnealdeko hiriguneetan

⁴⁴ Salbuespen nabariena Astigarragaren hizkuntza-eskuliburu arrakastatsua (lehen edizioak, 1825, 1827 eta 1839).

⁴⁵ Echagüek aztertu duenez (2012), ez da axola gutxiko kontua *arrote* pertsonaia sortu izana XIX. mendeko Bilboko antzerkian, erdaraz gutxi eta gaizki moldatzen ziren baserritar euskaldunak barreagarri uzten zituen. Espainiako Urrezko Mendeko *bizkainoaren* kopia-edo da, baina kontua da oraingoan euskal herritarrek eurek barre egiten diotela halakoari, Larramendi eta beraren garaikoak bezala iraindurik sentitu eta sumindu beharrean.

eta, hortaz, euskal hiztunen komunitatea ere arian-arian saretuz joan zen haien ingurumarietan.

Hala ere, ikusi dugunez, eliteetako batzuek egoera larri horri erantzun nahi izan zioten, euskaraz edota euskararen alde lan eginez. Ezin lehengora itzuli, ezta hurrik eman ere, baina egia da beren lorpenak nabarmentzea merezi dutela, gaur egun ezagutzen dugun euskal kulturaren, euskarazko kulturaren, oinarri baitira.

Liburu-ekoizpena etengabe handitu zen, bai argitalpenak (1a eta 1b), bai lehen edizioak (2a eta 2b), bai jatorrizko liburuak (3a eta 3b). Kopuruak, beti txikiak izan arren, aurreko garaietakoak baino nabarmen handiagoak dira⁴⁶:

1. TAULA – Euskarazko liburuen ekoizpena dialektoka eta epeka (1545-1879)

	1a 1545- 1749	1b 1750- 1879	2a 1545- 1749	2b 1750- 1879	3a 1545- 1749	3b 1750- 1879
V	2	74	2	24	1	13
G	8	187	7	69	3	44
L	53	206	25	53	12	22
S	10	47	6	8	2	4
Sur	10	261	9	93	4	57
Norte	63	253	31	61	14	26
Total	73	514	40	154	18	83

(Sarasola, 1976, 181-183. orr.)

⁴⁶ B = bizkaiera; G = gipuzkera; L = lapurtera; Z = zuberera. "Iparraldeak" azken biak hartzen ditu, eta "Hegoaldeak" lehenengo biak.

Lekuan lekuko aldaerak erabiltzen jarraitu arren, literatur hizkuntza finkatzen, aberasten eta malgutzen doa aldaera estandarrenetan, eta erlijio-esparrutik kanpoko gaiak jorratzen dira (historia, filosofia, kondaira...). Maila jasoago horretan, irizpideak Pirinioen bi aldeetan partekatzen dira gutxi-asko, batez ere ortografiari eta lexikoari dagokienez.

Argitalpenen kopuruak eta irakurketa aukeren aniztasunak irakurleen kopurua eta prestakuntza ere hazten ari direla iradokitzen dute: besteak beste, esanguratsuak dira Juan Ignazio Iztuetaren *Gipuzkoako Kondaira* (1847), euskaraz argitaratutako lehen historia liburua (1847), eta Gregorio Arrueren *Santa Genobebaren bizitza* (1868), bere garaian irakurrienetakoa.

Gainera, Larramendik lapurtera klasikoa (XVII. mendea) euskaldun guztien ondare bihurtzea lortu zuen, Axularren liburua bereziki, eta hori islatzen da bai euskaltzale ikasien irakurketetan, bai testuartekotasun kontuetan, baita hizkuntza aukera batzuetan ere (xehetasunetarako, ik. Urgell, 2018, 580-582. orr.)⁴⁷.

Euskararen ospea, Erromantizismoak hauspotua, Europa osoan zabaldtu zen. Bertakoek zein arrotzek hizkuntza deskribatzeko eta aztertzeko ahalegin handia egin zuten, baita lekukotasun zahar eta modernoak biltzeko ere. Euskararen historiaren lehen lerroan jartzeko moduko idazle ez gutxi sortzeaz gain, XIX. mendean gero eta

⁴⁷ Biziki erroturik dago gure artean, XX. mendearen hasieratik behinik behin, Hegoaldeko idazleek elkarrengandik eta Iparraldeko literaturatik guztiz isolaturik idatzi zutelako ustea, goian esandakoak ezeztatzen duena. Gaiari egindako lehen hurbilketa baterako, ikus Urgell (1991, 905. orr. eta hur.).

ohikoagoa izan zen eragilearen figura, euskararen inguruko edota euskarazko ekintzak egin eta eragiten zituena (aldizkariak eta lore-jokoak dirateke horren agerkari nabarietak). Laburbildurik, epe luzera nobedade garrantzitsuena herrialde osoan zehar elite euskaltzale baten sorrera izango da, era batera edo bestera, gutxi edo asko, elkarrekin loturik dauden kide gutxi batzuek osatutako “kluba”. Elite euskaltzale horrek, bere lanaren eta irmotasunaren bidez eta, noski, piztu zuten konplizitate politikoaren bidez, lortu zuen XIX. mendearen bigarren erditik aurrera bizitza publikoan espazio txiki bat irekitzea euskarari. Talde berari zor diegu euskara batua eta hizkuntza-akademia sortzeko asmoa (Euskaltzaindia 1919an jaio zen). Pirinioetako mugaren bi aldeetako eragileen arteko koordinazio handiagoa ere zor diegu.

Adierazi dugun bezala, “Euskal Pizkundea” deiturikoa azken euskal foruak galdu zireneko dataren (1876) eta Gerra Zibilaren hasieraren (1936) artean kokatzen da. Berriz ere, “dena” galtzen da Francoren diktaduraren berrogei urteetan, euskaltzaleak erbestera jotzera edo katakonbetan babesa hartzera beharturik.

Bibliografia

- Altuna, P. (1982). *Mendibururen idazlan argitaragabeak*. Euskaltzaindia.
- Altuna, P. (1992). Aita Larramendiren bizitza. In J. A. Lakarra (Arg.), *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)* (3-26. orr.). Euskaltzaindia.
- Altzibar, X. (1990). *Peru Abarca*-ren kopiak eta lehen edizioa. *ASJU*, 24(3), 871-887.
- Anderson, B. (2011 [1983]). *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Fondo de Cultura Económica.
- Arcocha-Scarcia, A. (2008). *Linguae Vasconum Primitiae*-ren peritestalitateaz eta euskararen gramatizazioaren primiziaz. *ASJU*, 42(2), 1-68.
- Arcocha-Scarcia, A. & Lakarra, J. A. (2019). Aspectos de la gramatización antigua de la lengua vasca. *Lengas*, 86. <https://doi.org/10.4000/lengas.4115>.
- Astorgano, A. (2003). Hervás, la Bascongada y los lingüistas defensores del vasco-iberismo, en el marco del fuerismo. In *Astarloa en el II centenario de la «Apología de la Lengua Bascongada» (1803-2003)* (11-140. orr.). Euskal Herriko Adiskideen Elkarte.
- Auroux, S. (1992). *A revolução tecnológica da gramatização*. Editora Unicamp.
- Auroux, S. (1994). *La révolution technologique de la grammatisation*. Mardaga.
- Azkarate, M. (2023). Euskara estandarraren aldakortasuna: konposizionala ala plurizentrikoa? In J. A. Lakarra, J. Manterola, & G. Elordieta (Arg.), *Jose Ignazio*

- Hualderen omenez. Ikerketak fonologiaz eta diakroniaz. In honor of José Ignacio Hualde. Studies in phonology and diachrony* (= ASJU 57: 1-2) (105-119. orr.).
- Azkue, R. M. de. (1935). *Gipuzkera Osotua*. Gaubeka.
- Bilbao, G. (1998). De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak (II). ASJU, 32(1), 165-230.
- Bilbao, G. (2006). *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakeralanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa* [Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)].
<http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gidor Bilbao TESIA.pdf>
- Burke, P. (1991 [1978]). *La cultura popular en la Europa moderna*. Alianza.
- Burke, P. (2006 [2004]). *Lenguas y comunidades en la Europa moderna* (Jaime Blasco Castiñeyra-ren itzulp.). Akal.
- Camino, I. (2018). Azken Euskara Modernoa. In J. Gorrochategui, I. Igartua, & J. A. Lakarra (Arg.), *Euskararen historia* (659-735. orr.). Eusko Jaurlaritza.
- Echagüe Burgos, J. (2012 [2006]). De los vizcaínos a los arlotes. Sobre el empleo humorístico del español hablado por los vascos. *Cuadernos Cervantes de la lengua española*, 43, 34-42.
- Esteban, J. (2013). El fin del Antiguo Régimen en las tierras vascas. Discursos, conceptos y metáforas. *Proceedings of the 16th International Conference on the History of Concepts* (616-623. orr.). Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Esteban, J. (2018). *Discursos civilizadores. Escritores, lectores y lecturas de textos en euskera* (c. 1767-c. 1833). Sílex.

- Esteve Serrano, A. (1976-77). *El Libro subtilísimo intitulado Honra de escrivanos* de Pedro Madariaga. In *Homenaje al profesor Muñoz Cortés I*. Universidad de Murcia.
- Etxebarria Etxebarrena, N. (2005). *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*. Labayru Institutua, Arantzazu E.F. & BBK Fundazioa.
- Gómez López, R. (2009). Las ideas lingüísticas de José Francisco Aizkibel: el manuscrito *Euskera*. In V. G. Rodríguez (Arg.), *Las ideas y realidades lingüísticas en los siglos XVIII y XIX* (261-277. orr.). Universidad de Cádiz.
- Gómez López, R. (2018). Euskal gramatika zaharren katalogo baterantz: gramatika eskuizkribatuak. In J. A. Lakarra, & B. Urgell (Arg.), *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica* (= ASJU 52: 1-2) (293-315. orr.). Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Gómez Trueba, T. (1999). *El sueño literario en España. Consolidación y desarrollo del género*. Cátedra.
- Gorrochategui, J., & Lakarra, J. A. (2001). Comparación lingüística, filología y reconstrucción del Protovasco. In F. Villar, & M. P. Fernández (Arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania* (407-438. orr.). Universidad de Salamanca.
- Guerrero Elecalde, R. (2012). *Las élites vascas y navarras en el gobierno de la monarquía borbónica. Redes sociales, carreras y hegemonía en el siglo XVIII* (1700-1746). Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

- Holmes, J. (2001). *An Introduction to Sociolinguistics*. Edinburgh.
- Krajewska, D., Zuloaga, E., Santazilia, E., Ariztimuño, B., Uribe-Etxebarria, O., & Regero, U. (2017). *Esteve Materraren Do(c)trina christiana (1617 & 1623)*. Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo".
- Lakarra, J. A. (1985). Larramendiren hiztegitzaren inguruan. *ASJU*, 19(1), 9-50.
- Lakarra, J. A. (1986). Burgosko Dotrina (1747): I. Testua eta oharra. *ASJU*, 20(2), 533-594.
- Lakarra, J. A. (Arg.). (1992). *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*. Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A. (1997). Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU*, 31(2), 447-535.
- Larramendi, M. (1728). *De la antigüedad y universalidad del Bascuense en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas, Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua*. Eugenio Garcia de Honorato. Bigarren edizioak (c. 1732) egilearen aldaketak ditu.
- Larramendi, M. (1729). *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*. Antonio Joseph Villargordo.
- Larramendi, M. (1745). *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuense y Latín*. Bartholomé Riesgo y Montero.
- Larramendi, M. (1747). Carta-prólogo del P. Larramendi para el libro del P. Sebastián de Mendiburu *Jesusen bihotzaren devocioa*. In J. I. Tellechea Idigoras, *Autobiografía y otros escritos (Obras del Padre Larramendi 2)* (277-281. orr.). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

- Larramendi, M. (1754 [1969]). *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa* (J. I. Tellechea Idígoras-en ed.). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Larramendi, M. (1758 [1983]). *Sobre los fueros de Guipúzcoa* (J. I. Tellechea Idígoras-en ed.). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Leizarraga, J. (1571). *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria. Othoitza ecclesiasticoen forma. Catechisme. Kalendrera. ABC edo Christinoen instruccionea*. Rochella: Pierre Hautin. [Th. Linschmann & H. Schuchardt-en 1900eko argitalpenaren faksimilea: Euskaltzaindia, 1990].
- Liverani, E., & Parenti, A. (2022). *Il dizionario spagnolo-italiano di Nicolao Landucci (1562)*. Leo S. Olschki.
- Madariaga, P. de. (1565). *Honra de escriuanos*. Juan de Mey. Biblioteca Digital Hispánicako alea (PDI bdh0000170921) erabili dugu [2019-04-25].
- Madariaga Orbea, J. (2014). *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Euskaltzaindia.
- Mitxelena, K. (1953 [2011]). Arnaut Oihenart. In J. A. Lakarra, & I. Ruiz Arzalluz (Arg.), *Luis Michelena. Obras completas XI* (277-296. orr.). Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Mitxelena, K. (1983). Mendiburu eta Larramendi. *Euskera*, 28(1), 19-23.
- Monteano Sorbet, P. J. (2017). *El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*. Pamiela.
- Mounole, C. & Gómez, R. (2018). Euskara Zahar eta Klasikoa. In J. Gorrochategui, I. Igartua, & J. A.

- Lakarra (Arg.), *Euskararen historia* (509-592. orr.). Eusko Jaurlaritza.
- Mounole, C., & Lakarra, J. A. (2018). Euskara Arkaikoa. In J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (Arg.), *Euskararen historia* (345-468. orr.). Eusko Jaurlaritza.
- Oyharçabal, B. (2001). Statut et évolution des lettres basques durant les XVII^{ème} et XVIII^{ème} siècles. *Lapurdum*, 6, 219-288.
- Oyharçabal, B. (2008). Ohar bat literatura historiografiaz: B. Echepare Erdi-Aroko autore? In *Jean Haritschelhar-i omenaldia. Homenaje a Jean Haritschelhar. Hommage à Jean Haritschelhar* (Iker 21) (491-521. orr.). Euskaltzaindia.
- Rico Callado, F. L. (2002). *Las misiones interiores en la España de los siglos XVII-XVIII*. Universidad de Alicante.
- Romaine, S. (2007). Linguistic diversity and language standardization. In M. Hellinger, & A. Pauwels (Arg.), *Handbook of Language and Communication: Diversity and Change* (HAL 9) (685-713. orr.). Mouton de Gruyter.
- Ruiz Uriarte, C. (2025). *Le Réveil Basque (1886-1894): Esquisse d'un catalogue. Le Réveil Basque astekari gorriaren katalogoa eratzerantz*. UPV/EHUko eta UPPAko Master Amaierako Lana.
- Sarasola, I. (1976). *Historia social de la literatura vasca*. Akal.
- Segurola, K. (2004). XVIII. mendeko autore ezezagun bat. *Lapurdum*, 9, 243-282.
- Tellechea Idígoras, J. I. (1968). Larramendi y Cardaveraz. Censura y réplica inéditas sobre un libro de piedad. *ASJU*, 2, 3-31.
- Tellechea Idígoras, J. I. (1969). Véase Larramendi 1754.

- Tellechea Idígoras, J. I. (1983). Introducción. In *Sobre los Fueros de Guipúzcoa. Obras del Padre Larramendi* (xv-civ. orr.). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Ulibarri, K. (2015). *Dotrinazko Sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*, [Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)].
<http://hdl.handle.net/10810/15971>
- Ulibarri, K., & Urgell, B. (2019). Euskararen gramatizazioaren hasikinak XVI. mendean: Pedro Madariaga eta euskal hotsak. In I. Epelde, & O. Jauregi (Arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez* (493-512. orr.). Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Urgell, B. (1991). Axular eta Larramendi. *ASJU*, 25(3), 901-928.
- Urgell, B. (1999). *Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades* erkatuaz (III): Gaztelania. *ASJU*, 33(1), 157-238.
- Urgell, B. (2015). Tartas eta Leizarraga berrikusiak, edo nola aldatzen duen historia ikertzailearen begiradak. In B. Fernández, & P. Salaburu (Arg.), *Ibon Sarasola. Gorazarre. Homenatge. Homenaje* (647-663. orr.). Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Urgell, B. (2018). Lehen Euskara Modernoa (1745-1891). In J. Gorrochategui, I. Igartua, & J. A. Lakarra (Arg.), *Euskararen Historia* (549-657. orr.). Eusko Jaurlaritza.
- Urgell, B. (2025). Larramendiren apologiaren XVIII. mendeko bizitza, edo zergatik ez den bibliografia lana ahaztu behar. *ASJU*, 59(1), 53-87.

<https://doi.org/10.1387/asju.27275>

Urgell, B. (2026). *Larramendi Gipuzkoako Batzarren aktetan*. [Prestatzen].

Urkizu, P. (2000). *Historia de la literatura vasca*. UNED.

Urquijo, J. de. (1923). Cosas de antaño. Las Sinodales de Calahorra (1602-1700). I. Catecismos y predicación en vascuence. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 14, 335-339.

Villasante, L. (1964). Texto de dos impresos sumamente raros de Juan Antonio de Moguel. *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 20, 61-73.

Villasante, L. (1979). *Historia de la Literatura Vasca* (2. ed.). Aranzazu.

Zulaika, J. M. (2012). Breve panorámica de la lexicografía vasca anterior al *Diccionario Trilingue* de Larramendi (1745). *BSEHL*, 8, 43-71.